


## KOKAPENA: Hondarribia

Hondarribiaren kokapen geografikoari dagokionez, guztiz estrategikoa dela esan dezakegu. Bidasoa ibaiaren bokalean, Jaizkibel mendiaren babespean kokatzen da.

Bestalde, Euskal Herria eta Hego Euskal Herria nahiz Gipuzkoa eta Lapurdi arteko mugan, Irun eta Hendayarekin batera Txingudiko metropoli-eremua osatzen du.

Bere historia aberatsaren ondorio, ondare material eta inmaterial garrantzitsua du Hondarribiak. Euskadin diren gotorleku gutxienetako bat da. Harresiaren zati gehienak zutik jarraitzen dute, eta etengabe ari dira berroneratzen.

**Proiektu kokapena:**
Proiektua hain zuzen, bi auzo historikoak, Arrantzale auzoa eta Alde zaharra elkartzen diren puntuan kokatuko da. Harresiaren Iparraldean, Madalena kuboa izeneko bastioa kokatzen zen puntuan.

Gaur egun, nukleo ekonomiko eta soziala arrantzale auzoan dagoela oso nabaria da, eta Madalena kuboa zegoenaren lekuan, ez da inondik nabari hiri historikoaren arrastorik. Horregatik nire proiektuaren helburuetako bat, gune horri garrantzia bueltatzea izango da.





e:1/10.000



e:1/750



ALTXAERA HARRESILANDA KALETIK e:1/500



ALTXAERA JABIER UGARTE KALETIK e:1/500

## ANALISIA: [1] Harresiaren plano historikoa gainjarrita



e:1/2000

## [2] Harresiaren mugak gaur egun duen eragina




**[1]**
Geografikoki eremu estrategikoa izateaz gain, muga politikoa izan zen ere hasieratik, horrek hiri harresitua izatera bultzatu zuen. Ziurrenik, 1200. urtea baina lehenago fundatua izan zen Nafar erreinuarengatik. Hala ere, ofizialki 1203. urtekoapirilaren 18an Alfontso VII. ak Gaztelakoak Donostiko Forua eman zion Hondarribiari.

Datu eta plano zehatzik ez dagoen arren, Hondarribia murru bat izango zuen bizilekua mugatu eta defendatzeko, behe Erdi-Aroan, garaiko Eurapa mendebaldean beste edozein herribilduren antzera. Ziurrenik ere,1480. urte inguruan harresiez kanpo auzoren bat egongo zen.
Erdi aroko harresiak laukizuzen forma antzekoazuela dirudi. Hiri tramari dagokionez bi kale nagusik antolatuko zuten, hauek hiriko bi ateekin lotzen zirelarik. Hirian zehar zenbait dorretxe zeuden, defentsa funtzioa zutelarik.

**[2]**
Harresiaren gaur egungo irisgarritasunari dagokionez, oinezkoentzako sarrera ezberdin ugari daude, Igogailu bat ere badago, harresiaren ipar-ekialdean.

Autoentzako sarrerak Iparraldean, Hegoaldean eta Ekialdean kokatzen dira.  Beraz, orokorrean esan daiteke harresiaren muga egonda ere, Alde zaharra irisgarria dela.

Harresiaren mugak daukan eraginean ordea, kontuan hartu behar da
harresiaren inguruko guneak gehienetan espazio publiko bezala planteatuak daudela. Gune pribatu bakarra, Iparraldean kokatzen den puntu bat da, bi auzo historikoak elkartzen diren puntuan hain zuzen. Bertan, Madalena kuboa kokatzen zen.

Proiektuaren beste helburuetako bat, puntu honetan bi auzoen arteko lotura nabarmentzea eta hobetzea izango da. Ibilbide berri eta irisgarri bat proiektuan barneratuz.



ADALENA UBOA

**GIZARTE ETXEA HONDARRIBIAN**
Ikaslea: Nerea Sanchez Olaizola |Tutorea: Ula Iruretagoiena Busturia
Master Amaierako Lana